CRISTÓBAL BALENCIAGA FUNDAZIOA - FUNDACIÓN

FUNDACIÓN CRISTÓBAL BALENCIAGA – CRISTÓBAL BALENCIAGA FUNDAZIOAREN URTEKO KONTUEN AUDITORETZAKO ZERBITZU PROFESIONALAK ETA KULTURA ETA KIROL MINISTERIOAREN TRANSFERENTZIAK JUSTIFIKATZEN DITUZTEN KONTUEN AUDITORETZAKO ZERBITZU PROFESIONALAK KONTRATATZEKO PROZEDURA IREKI BIDEZKO LIZITAZIOA ARAUTUKO DUEN PRESKRIPZIO TEKNIKOAK ZEHATZEN AGIRIARI DAGOKIONA

(2-4 ORRIAK)

PLIEGO DE PRESCRIPCIONES TÉCNICAS QUE HA DE REGIR LA LICITACIÓN, LICITACIÓN, MEDIANTE PROCEDIMIENTO ABIERTO, PARA LA CONTRATACIÓN DE LOS SERVICIOS PROFESIONALES DE AUDITORÍA DE LAS CUENTAS ANUALES DE FUNDACIÓN CRISTÓBAL BALENCIAGA – CRISTOBAL BALENCIAGA FUNDAZIOA, ASÍ COMO LOS SERVICIOS PROFESIONALES DE AUDITORÍA DE LAS CUENTAS JUSTIFICATIVAS DE LAS TRANSFERENCIAS DEL MINISTERIO DE CULTURA Y DEPORTE

(PAGINAS 5-7)

1. KONTRATUAREN XEDEA

Kontratuaren xedea da FUNDACIÓN CRISTÓBAL BALENCIAGA – CRISTÓBAL BALENCIAGA FUNDAZIOAren 2021., 2022. eta 2023. ekitaldietako urteko kontuen auditoretzako zerbitzu profesionalak ematea, bai eta, hala badagokio, Kontratazio Organoak urtero erabakitako luzapenetatik eratorritakoak ere, Karatula honetan, Baldintza Administratibo Partikularretan eta Baldintza Teknikoen Agirian ezarritakoaren arabera.

Horrez gainera, kontratuaren xedeak barne hartuko ditu Kultura eta Kirol Ministerioak FUNDACIÓN CRISTÓBAL BALENCIAGA – CRISTÓBAL BALENCIAGA FUNDAZIOAri 2021., 2022. eta 2023. urteetan funtzionamendu gastuetarako egindako transferentzien justifikazio kontuen auditoretzako zerbitzu profesionalak, eta, hala badagokio, Kontratazio Organoak urtero erabakitako luzapenen ondoriozkoak.

Kontratuaren CPV kodea honako hau da: 79212000-3 (auditoretza-zerbitzuak).

1. LANEN IRISMENA ETA GARAPENA

a. Urteko kontuen auditoretza lanen irismena eta garapena

Adierazitako lana behar besteko irismenarekin egingo da, kontratistak kontabilitate egoerei buruzko iritzi profesionala eman ahal izan dezan, oro har onartutako auditoretza arauen arabera. Arau horien arabera, beharrezkoa da justifikazio ebidentzia aztertzea eta horren aurkezpena, aplikatutako kontabilitate printzipio eta irizpideak eta egindako estimazioak aztertzea, hautaketa proben bitartez.

Kontratista den kanpoko auditoreak ezarri beharko du lanaren irismen hori, Kontabilitate eta Kontu Auditoretzako Institutuak argitaratutako auditoretzako arau teknikoek zehaztutako garrantzi erlatiboan oinarrituta.

Egiaztatuko da kontabilitateak, oro har, eta urteko kontuek eta gainerako finantza egoerek ondarearen eta finantzen egoera eta eragiketen emaitza adierazten dutela, modu arrazoizkoan, aplikatzekoak diren kontabilitate arau eta printzipioen arabera.

Finantza egoeren azterketa egingo da, eta bertan jasoko dira horiei buruzko azalpen oharrak, aplikatutako kontabilitate printzipio eta irizpideei buruzko alderdi garrantzitsuak eta egindako estimazioak aipatuz, bai eta egoera ekonomiko eta finantzarioa eta ondare egoera behar bezala ulertzeko beharrezkoak diren beste informazio batzuk ere.

Horiek horrela, kontratuaren xede diren zerbitzuek honako jarduketa hauek hartuko dituzte beren baitan:

a) CRISTÓBAL BALENCIAGA FUNDAZIOAREN urteko kontuen auditoretzak, 2020, 2021 eta 2022ko ekitaldiei dagozkienak, eta, hala badagokio, karatulako 5. puntuan adierazitakoaren arabera urtero adostutako luzapenen ondoriozkoak, aplikatu beharreko araudiaren arabera.

b) CRISTÓBAL BALENCIAGA FUNDAZIOAREN urteko kontuen auditoretzen txostenak, 2020, 2021 eta 2022ko ekitaldiei dagozkienak, eta, hala badagokio, karatulako 5. puntuan adierazitakoaren arabera urtero adostutako luzapenen ondoriozkoak.

   Kontratistak CRISTÓBAL BALENCIAGA FUNDAZIOAREN urteko kontuen auditoretza txostenak egin beharko ditu, Kontu Auditoretzari buruzko uztailaren 20ko 22/2015 Legearen 5. artikuluan eta aplikatu beharreko gainerako araudian adierazitako irismen eta edukiarekin.

   Auditoretza txosten horiek dagokion auditore independenteak elektronikoki sinatu beharko ditu, Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioen Babesletzaren eta Erregistroaren Erregelamendua onartzen duen uztailaren 23ko 115/2019 Dekretuaren 27. artikuluan adierazitako moduan.

   Aipatutako txosten horiek EAEko bi hizkuntza ofizialetan eman beharko dira.

   CRISTÓBAL BALENCIAGA FUNDAZIOAK zehaztuko du zer epetan aurkeztu behar diren txostenak, 60 egun naturaleko aurrerapenarekin gutxienez, eta entregatzeko epeak ezingo du, inola ere, dagokion urteko apirilaren 15etik gorakoa izan.

b. Kultura eta Kirol Ministerioaren transferentziak justifikatzen dituzten kontuen auditoretza lanen irismena eta garapena

Kultura eta Kirol Ministerioaren transferentziak justifikatzen dituzten kontuen auditoretza lanak beharrezko irismenarekin egingo dira, kontratistak CRISTÓBAL BALENCIAGA FUNDAZIOAK aurkeztutako justifikazio kontuei buruzko iritzi profesionala eman ahal izan dezan, honako hau oinarri hartuta: "*EHA/1434/2007 Agindua, maiatzaren 17koa, uztailaren 21eko 887/2006 Errege Dekretuaren bidez onartutako Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren Erregelamenduaren 74. artikuluan aurreikusitako Estatuko sektore publikoaren esparruan dirulaguntzak justifikatzeko kontuak berrikusteko lanak egitean kontu auditoreek izan behar duten jarduera araua onartzen duena*, edo, hala badagokio, hura ordezten duen eta indarrean den araudia.

Horiek horrela, kontratuaren xede diren zerbitzuek honako jarduketa hauek hartuko dituzte beren baitan:

a) Kultura eta Kirol Ministerioak CRISTÓBAL BALENCIAGA FUNDAZIOARI 2021., 2022. eta 2023. urteetan funtzionamendu gastuetarako egindako transferentzien justifikazio kontuen auditoretzen txostenak, eta, hala badagokio, karatulako 5. puntuan adierazitakoarekin bat etorriz urtero erabakitako luzapenen ondoriozkoak, aplikatu beharreko araudiaren arabera.

   Kontratistak justifikazio kontuetako txostenak egin beharko ditu, maiatzaren 17ko EHA/1434/2007 Aginduak aipatzen dituen irismen eta edukiarekin. Agindu horrek onartzen du kontu auditoreek Estatuko sektore publikoaren esparruan dirulaguntzak justifikatzen dituzten kontuak berrikusteko lanetan jarduteko araua, zeinak aurreikusita baitaude 2006ko azaroaren 17ko 38/2003 Legearen Erregelamenduaren 74. artikuluan eta uztailaren 21eko 887/2006 Errege Dekretu Orokorrean eta aplikatzekoa den gainerako araudian.

   Transferentziak justifikatzen dituzten kontuen auditoretzen txostenak entregatzeko epea CRISTÓBAL BALENCIAGA FUNDAZIOAK zehaztuko du, gutxienez 30 egun naturaleko aurrerapenarekin, eta entregatzeko epeak ezingo du, inola ere, dagokion urteko martxoaren 15etik gorakoa izan.

2. INTERES GATAZKAK

Ikuskatzaileak ezin izango du hirugarrenekin konpromisorik hartu, baldin eta horren ondorioz interes gatazka sortzen bada zerbitzu hau emateko orduan. Betebehar hori betetzen ez bada, kontratua suntsiarazi ahal izango da, eta dagokion kalte-galeren ordaina eman beharko da.

1. OBJETO DEL CONTRATO

El objeto del contrato lo constituye la prestación de los servicios profesionales de auditoría de las cuentas anuales de FUNDACIÓN CRISTÓBAL BALENCIAGA – CRISTOBAL BALENCIAGA FUNDAZIOA (en adelante, FUNDACIÓN CRISTÓBAL BALENCIAGA) de los ejercicios 2021, 2022 y 2023, y los que resulten, en su caso, de las prórrogas acordadas anualmente por el Órgano de Contratación, según lo previsto en la presente Carátula, en el Pliego de Cláusulas Administrativas Particulares y en el Pliego de Prescripciones Técnicas.

Adicionalmente, el objeto del contrato comprenderá los servicios profesionales de auditoría de las cuentas justificativas de las transferencias realizadas por el Ministerio de Cultura y Deporte a FUNDACIÓN CRISTÓBAL BALENCIAGA para los gastos de funcionamiento ejecutados durante los años 2021, 2022 y 2023, y los que resulten, en su caso, de las prórrogas acordadas anualmente por el Órgano de Contratación.

El Código CPV del contrato es el siguiente: 79212000-3 (Servicios de auditoría).

2. ALCANCE Y DESARROLLO DE LOS TRABAJOS

a. Alcance y desarrollo de los trabajos de auditoría de las cuentas anuales

El trabajo indicado se realizará con el alcance necesario para que el contratista pueda emitir opinión profesional sobre los estados contables de acuerdo con las normas de auditoría generalmente aceptadas, que requieren el examen, mediante la realización de pruebas selectivas, de la evidencia justificativa y la evaluación de su presentación, de los principios y criterios contables aplicados y de las estimaciones realizadas.

Dicho alcance del trabajo deberá ser establecido por el Auditor externo que resulte contratista en base a la importancia relativa determinada por las normas técnicas de auditoría publicadas por el Instituto de Contabilidad y Auditoría de Cuentas.

Se comprobará que la contabilidad en general y las cuentas anuales y demás estados financieros, representan razonablemente la situación patrimonial y financiera y el resultado de sus operaciones de acuerdo con las normas y principios contables que le son de aplicación.

Se realizará el examen de los estados financieros, que incluirá las notas explicativas a los mismos, en las que se comenten los aspectos de importancia referentes a los principios y criterios contables aplicados y las estimaciones realizadas, así como

otras informaciones necesarias para la adecuada comprensión de la situación económica - financiera y patrimonial.

Siendo así, los servicios objeto del contrato comprenderán las siguientes actuaciones:

c) La realización de las auditorías de las cuentas anuales de FUNDACIÓN CRISTÓBAL BALENCIAGA correspondientes a los ejercicios 2020, 2021 y 2022, y a los que resulten, en su caso, de las prórrogas acordadas anualmente conforme a lo indicado en el punto 5 de la Carátula, de acuerdo con la normativa de aplicación.

d) La elaboración de los informes de las auditorías de las cuentas anuales de FUNDACIÓN CRISTÓBAL BALENCIAGA correspondientes a los ejercicios 2020, 2021 y 2022, y a los que resulten, en su caso, de las prórrogas acordadas anualmente conforme a lo indicado en el punto 5 de la Carátula.

   El contratista deberá emitir los informes de auditoría de las cuentas anuales de FUNDACIÓN CRISTÓBAL BALENCIAGA con el alcance y contenido a que se refiere el artículo 5 de la Ley 22/2015, de 20 de julio, de Auditoría de Cuentas y restante normativa que resulte de aplicación.

   Los referidos informes de auditoría deberán estar firmados electrónicamente por el auditor o auditora independiente correspondiente, en los términos indicados en el artículo 27 del Decreto 115/2019, de 23 de julio, por el que se aprueba el Reglamento del Protectorado y del Registro de Fundaciones del País Vasco.

   Los referidos informes deberán entregarse en las dos lenguas oficiales de la CAE.

   El plazo de entrega de los informes se determinará por FUNDACIÓN CRISTÓBAL BALENCIAGA con una antelación mínima de 60 días naturales, sin que en ningún caso el plazo de entrega pueda excederse del 15 de abril del año correspondiente.

b. Alcance y desarrollo de los trabajos de auditoría de las cuentas justificativas de las transferencias del Ministerio de Cultura y Deporte

Los trabajos de auditoría de las cuentas justificativas de las transferencias del Ministerio de Cultura y Deporte se realizarán con el alcance necesario para que el contratista pueda emitir opinión profesional sobre las cuentas justificativas presentadas por FUNDACIÓN CRISTÓBAL BALENCIAGA, en base a la *"Orden EHA/1434/2007, de 17 de mayo, por la que se aprueba la norma de actuación de los auditores de cuentas en la realización de los trabajos de revisión de cuentas*

justificativas de subvenciones, en el ámbito del sector público estatal, previstos en el artículo 74 del Reglamento de la Ley 38/2003, de 17 de noviembre, General de Subvenciones, aprobado mediante Real Decreto 887/2006, de 21 de julio, o normativa vigente que, en su caso, la sustituya.

Siendo así, los servicios objeto del contrato comprenderán las siguientes actuaciones:

b) La realización de las auditorías de las cuentas justificativas de las transferencias realizadas por el Ministerio de Cultura y Deporte a FUNDACIÓN CRISTÓBAL BALENCIAGA para los gastos de funcionamiento ejecutados durante los años 2021, 2022 y 2023, y los que resulten, en su caso, de las prórrogas acordadas anualmente conforme a lo indicado en el punto 5 de la Carátula, de acuerdo con la normativa de aplicación.

c) La elaboración de los informes de las auditorías de las cuentas justificativas de las transferencias realizadas por el Ministerio de Cultura y Deporte a FUNDACIÓN CRISTÓBAL BALENCIAGA para los gastos de funcionamiento ejecutados durante los años 2021, 2022 y 2023, y los que resulten, en su caso, de las prórrogas acordadas anualmente conforme a lo indicado en el punto 5 de la Carátula, de acuerdo con la normativa de aplicación.

   El contratista deberá emitir los informes de las cuentas justificativas con el alcance y contenido a que se refiere *Orden EHA/1434/2007, de 17 de mayo, por la que se aprueba la norma de actuación de los auditores de cuentas en la realización de los trabajos de revisión de cuentas justificativas de subvenciones, en el ámbito del sector público estatal, previstos en el artículo 74 del Reglamento de la Ley 38/2003, de 17 de noviembre, General de Subvenciones, aprobado mediante Real Decreto 887/2006, de 21 de julio* y restante normativa que resulte de aplicación.

   El plazo de entrega de los informes de las auditorías de las cuentas justificativas de las transferencias se determinará por FUNDACIÓN CRISTÓBAL BALENCIAGA con una antelación mínima de 30 días naturales, sin que en ningún caso el plazo de entrega pueda excederse del 15 de marzo del año correspondiente.

3. CONFLICTO DE INTERESES

El auditor no podrá tener ningún compromiso con terceros que le suponga encontrarse en una situación de la que se derive conflicto de interés para la realización de la presente prestación de servicios. El incumplimiento de esta obligación podrá suponer la resolución del contrato con la indemnización de daños y perjuicios que proceda.